

## **Bezeroekiko harremanak**

Bezeroak erakartzeko asmoarekin publizitatea erabiliko dugu eta behin hauek erakarrita, haiekin harremanetan jarraitzeko zerbitzu automatizatua eskainiko dugu webgunean bide azkar eta errez bat da , baina teknologiarekin eroso sentitzen ez diren bezeroentzat dendan bertan laguntza pertsonala ere eskainiko diegu arazorik gabe.



Gure bezeroekin harreman estua eta jarraitua mantendu nahi dugu, eta horretarako, esan bezala, bi bide zabalduko ditugu: alde batetik, gure dendara gerturatu daiteke bezeroa edozein zalantza argitzeko edota arazoren bat konpontzeko; bestetik, dendara etortzeko gai ez direnentzat gure web-gunearen bitartez gurekin komunikatzeko aukera izango dute eta bertan gurekin kontaktatzeko moduak agertuko dira : telefonoaren bitartez eta e-mailaren bitartez.